



Abenduaren 7a / 7 décembre

Orbaizetan gaindi

Orbaizetara joateko, oren bat et'erdiko bidea autobusez egin ginuen eta harat heldu ondoan, askaria hartu ginuen. Beste Nafarroako hiru eskola gurekin ziren, Orbaizetako historia eta bere lurraren hobeki ezagutzeko.

Lehenik, olan gaindi ibili ginen, labeari, arma lantegiari eta errekarari so eginez, ohartzeko zer bide ikatzak hartzen zuen laberaino heltzeko. Horretatik landa, museoan sartu ginen ikatza nundik heldu zen eta nola egiten zen jakiteko, garai hartan baliatzen zituzten tresnak ikusiz. Oihanean ibili ginen ola zaharrari buruz joanez eta erreka bazterrean, erakutsi zaizkiguten harri mota ezberdinak: malakita, eskistoak, kuartzita, piritak, arbelak... bai eta ere fosila batzuk: trilobitea eta krinoidea adibidez. Jakin ginuen ere gure Baigorriko harria eta mineralak Orbaizetan berdinak direla, lur mota berdina dugula ere, bai eta ere Orbaizetako olaren jabea Baigorriko Etxauzeko jauna zela.

Hori guzia posible izan da CPIE partaideari esker.



Donostei kolegioa

Abenduaren 14a / 14 décembre

Gaualdi partekatua Aiherrako Eskola Libroan

Omi-sainduko oporrak aitzin, burasoak eskolara gomiatu ginituen.

Lehen garaian landuak izan ziren kantu eta olerkiak aurkeztu ginituen. Ondotik, 2. eta 3. zikloko ikasleek euskarazko antzerkitxoak aurkeztu zituzten eta ama eskolako ikasleek ipuin bat kondatu zuten. Ondotik, prestatu afaria partekatu ginuen. Handiek, Aiherrako Ogi Bihia okindegian ogia egin zuten eta horrekin bakotxak nahi zuen tostada egiten zuen: gelan egin ginuen burra, gasnarekin edo gure baratzekeko tomate melatuarekin. Ondotik, ama-eskolako ikasleek eskolako bildu kuiekin, salda egin zuten. Bildu zituzten gaztainak saldan ezarri zituzten. Edateko, egin zuten sagar jusa ere bazen. Bukatzeko, jogurtak konpota pixka batekin jaten ahal ginituen. Erran gabe doa, mozkin guziak Aiherratik heldu zirela eta dena eskolan egina izan zela.

Gaualdian zehar, burasoek erakusketa bat begiratzen ahal zuten. Hor esplikatzen ginituen afari horren prestatzeko etapa desberdinak. Gaualdia giro on batean iragan zen, biziki goxo zen!



Aiherrako Eskola Libroko 3. zikloko ikasleak

Abenduaren 21a / 21 décembre

Zer berri Bilbon? San Mixeleko 4.ak bidaian!

San Mixel kolegioko 4. elebidunak, abenduaren 5etik 8ra Bilbon egon dira. Bilboko Zazpi kaleetako hotel batean lo egin dute eta programa bete bat segitu dute.

Lehen egunean, Bilbo bisitatu dute oinez eta txirrindulaz, gida batekin. Asteazkenean, Durangoko azokara treinez joan dira. Han, erakuts mahaiak ikusi dituzte, eta artistak galdezkatu. Autografo anitz ukan dituzte! Ondotik, Nogen eta Lilo taldeen kontzertuak gozatu dituzte, azkenik "Euskaldungak" antzerkia ikusi dute. Ostegunean, Gernikan eguna pasatu dute. Lehenik Bakearen museoa, gero Batzar Etxea eta Arbola bisitatu dituzte. Gernikako historia hobeki ezagutzeko parada ukan dute. Eguerditan, ikasleek bazkari berezia ukan dute: pintxo bazkaria! Ostiralean, ongi bukatzeko Guggenheim museoa bisitatu dute, taldeka galdera batzuei erantzunez.

Egonaldi horren bidez, ikasleek haien euskara hobetzeko parada ukan dute (bisitak, irakasleak... euskaraz ziren), Euskal Herriko kultura eta historia ezagutu dute. Azkenik, lau egun horietan 35 ikasleek haien artean loturak egin dituzte, zenbait karta partida pasaturik!! Ikasle eta irakasleak akiturik... baina biziki kontent sartu dira!



San Mixel Kanboko kolegioa